

conocida merecen llevar en sí el buen gusto y la memoria imperecedera que acarrearán trabajos de esta índole.

MARCIAL MARTINEZ AGUIRRE.

Eibar, Setiembre de 1854.

---

## ¡MORAZA-RI!

---

BERE ERIOTZAREN 7.<sup>garren</sup> URTEURRENEAN.

---

### (AMALAUDUNA.)

---

Zelaiyetan zimeldu ziradenean  
 Apaiñgarritzat zeuden lore galaiyak;  
 Igarturikan, lurra jo zuenean  
 Gernikan dagon aritz maitagarriyak;  
 Oñpeturik ikusi zituenean  
 Bere lege maiteak Euskal-erriyak,  
 Ill ziñan ¡O Moraza! penen artean,  
 Ez aditzeagatik antsi larriyak:  
 Baña gaur ikustean zoraturikan  
 Dabiltzala Euskaldúnak, pozez betéak,  
 Zér galdu zan aztu-ta daudelarikan,  
 Zér diran pentsa gabe gaurko nekéak,  
 Galdetzen, det, biyotza puskaturikan:  
 ¿Nón dirade ¡Moraza! zure semeak?

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

1885.<sup>ko</sup> Beltzillaren 17.<sup>an</sup>

---